

Nafarroako Udal Izendegia, 155. araua

Aurkezpena

Onomastika batzordea

Bete dira, jadanik, 28 urte Euskaltzaindiak 1979an *Euskal Herriko Udalen Izendegia* argitara eman zuenetik. Koldo Mitxelena, orduko Onomastika batzordeburuak, izendegi haren aurkezpenean adierazi zuen bezala, premia handiko lana izan zen, udal demokratiko hautatu berriei izen euskaldunak ofizial izateko aukera emateko egin zelako, besteak beste, lehengo izenen aldamenean edo gainean norbera bere kabuz euskal ordaina ematen ari zelako, eta egoera hartan Euskaltzaindiak, presaka bazen ere, Herri Izendegia kaleratu behar zuelako.

Onomastika batzordeak etengabe segitu du lanean eta horren froga dira orduz geroztik egindako lanak. 18/1986 Euskararen Foru Legearen 8. artikulua¹ betez, Nafarroako herri izenen proposamena prestatu zuen Euskaltzaindiak eta Nafarroako Gobernuarekin batera 1990ean argitara eman zuen *Nafarroako Herri Izendegia / Nomenclátor Euskérico de Navarra*. Liburu horretan udal izenez gain, auzo, ibar eta bestelako entitateen izenak ere bildu ziren. Lan hori izan zen oinarri Nafarroako Gobernuak 1989tik aitzina Foru Komunitateko eremu euskalduneko herrien euskal izenak onartzeko, baita eremu mistoko zenbait herrirenak ere².

Euskaltzaindiak, Onomastika batzordearen proposamenez, 2007an onartu duen izendegi honetarako udal izenak berraztertu ditu eta ikerketa berriaren ondorioz aldaketaren bat edo beste egin bada ere, nabarmendu behar da kasu gehienetan orduko erabakiak berretsi direla.

¹ 8. artikulua. 1. Foru Komunitatearen toponimoek gaztelaniaz eta euskaraz izanen dute izendapen ofiziala, honako arau hauen arabera:

Eremu euskaldunean, izendapen ofiziala euskalduna izanen da, honez den beste izen bat gaztelaniaz, kasu honetan biak erabiliko baitira.

Eremu misto eta ez-euskaldunean, izendapen ofiziala gaur egungoa izanen da. Hala ere, gaztelaniaz adierazitakoek euskaraz jatorrizko eta ohiko izen bat baldin badute, biak erabiliko dira.

2. Nafarroako Gobernuak, Euskaltzaindiaren alde aurreko txostenari jarraiki eta artikulua honen lehendabiziko atalean aurrikusitakoaren arabera, Foru Komunitatearen toponimoak erabakiko ditu, baita lurralde, herri eta hiriarteko bideen izen ofizialak ere, eta horren berri eman beharko dio Parlamentuari. Hiriko kaleen izenak jartzea Udal bakoitzari dagokio.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, Nafarroako lurraldearen barruan eta ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira eta errotuluak haiekin bat etorriko dira. Nafarroako Gobernuak errotulazioaren normalizazioa arautuko du, Estatuak onetsi dituen nazioarteko arauak beti errespetatuz.

3. Gobernuak erabakitako izenak, aurreko ataletan xedatutakoaren arabera, Nafarroako lurraldearen barruan eta ondorio guztietarako, legezkoak izanen dira eta errotuluak haiekin bat etorriko dira. Nafarroako Gobernuak errotulazioaren normalizazioa arautuko du, Estatuak onetsi dituen nazioarteko arauak beti errespetatuz.

² Nafarroako hizkuntza eremu banaketa dela eta, euskal izenak ez dira leku guztietan ofizial bihurtu.

Halaber, sartu dira 1979az geroztik udal bihurtu diren herrien izenak, bai eta eskualdeenak ere.

Gainera, oraingo izendegi honek, aurrekoak ez bezala, izaera berri eta garrantzitsua du, Euskaltzaindiaren osoko batzarrak onartua da eta, beraz, Akademiaren araua da. Orain dela urte gutxi, Euskaltzaindiak Euskal Herri osoko Herri Izendegia arau bihurtzea erabaki zuen eta amaitu berri du egiteko hori. Lehenik, Iparraldeko hiru lurraldeetakoak egin ziren, Zuberoa, Lapurdi eta Nafarroa Beherekoa; gero Euskal Autonomia Erkidegokoak, Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabakoa; azkenik, Nafarroakoa³.

Euskaltzaindiak, bestalde, gai honen inguruko beste erabaki batzuk ere onartu ditu, horien artean, nabarmendu behar da duen garrantzi eta eraginagatik 141. zenbakia daraman *Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* izeneko araua. Arau honetan aditzera ematen da herri izenak nola idatzi behar diren, bakunak direnean (*Lekunberri*), elkartuak direnean (*Orotz-Betelu*), testuen barruan deklinatuak eman behar direnean (*Abaurregaina*, baina *Abaurregainean nago*; *Basaburua*, baina *Basaburura noa*). Halaber azaltzen da, izen bera duten bi herri nola bereizi behar diren (*Etxarri Aranatz*, *Etxarri Etxauribar*) eta, azkenik, erdaraz eta euskaraz izen bana dutenean nola adierazi (*Iruñea/Pamplona*, *Gares / Puente la Reina*, *Orreaga/Roncesvalles...*). Esan bezala, Nafarroako Herri Izendegi hau aipatutako arau horren arabera egokitua dago.

Izendegiak erabiltzeko eta kontsultatzeko izaten direnez gero, Onomastika batzordea modurik egoki eta praktikoenean aurkezten saiatu da.

Izendegiaren egitura:

- I) Lau zutabetan, herrien euskal izenetik hasita hurrenkera honetan:
Euskal izena | Izen ofiziala | Herritarren izena | Eskualdea
- II) Lau zutabetan, herrien izen ofizialetik hasita hurrenkera honetan:
Izen ofiziala | Euskal izena | Herritarren izena | Eskualdea

Argibideak:

1979ko eta 1990eko izendegiekin erkatzen badugu, oraingo honetan ageri diren desberdintasunak bost azpiataletan sailkatzen ahal dira:

³ Honako hauek dira arauak: 92 Zuberoa, 99 Zuberoako herritar izenak, 108 Lapurdi, 122, 128 eta 133 Nafarroa Beherea; 140 Gipuzkoa, 145 Bizkaia, 150 Araba eta orain 155 Nafarroa

- Lehenengoan, izen berriak.
- Bigarreanean, kendu diren bitasunak.
- Hirugarreanean, datu berrien ondorioz zuzendu diren izenak.
- Laugarreanean, araugintza berriaren ondorioz zuzendu behar izan direnak.
- Bosgarreanean, euskal ordain ezaguna ez duten herri izenak (*N.t.e.e.c. No tiene equivalente eusquérico conocido*, hau da *Ez du euskal ordain ezagunik*).

Seigarren puntuan leku izenen deklinabidearen azalpen osoa ematen da sor daitezkeen zalantzak saihesteko.

1) Izen berriak

Azken urteotan zortzi udal berri sortu dira Nafarroan, horietatik sei Iruñerriko zendeetan.

Euskal izen arautua	Herritarra	Izen ofiziala	1979an kokatuta zegoen udala
Barañain	<i>barañaindar</i>	Barañáin	Zizur zendea
Beriain	<i>beriaindar</i>	Beriáin	Galar zendea
Berriobeiti	<i>berriobeitiar</i>	Berrioplano	Antsoain zendea
Berriozar	<i>berriozartar</i>	Berriozar	Antsoain zendea
Orkoien	<i>orkoiendar</i>	Orkoien	Oltza zendea
Zizur Nagusia (-a)	<i>zizurtar,</i> <i>zizurnagusitar</i>	Zizur Mayor <> Zizur Nagusia (-a)	Zizur zendea
Irurtzun	<i>irurtzundar</i>	Irurtzun	Arakil
Lekunberri	<i>lekunberriar</i>	Lekunberri	Larraun

Horretaz gain, zenbait eskualde eta merindade izen ere gehitu dira.

Ezaguna denez, gaur egungo Nafarroa bost merindadek osatzen dute: Iruñeko merindadea, Zangozako merindadea, Lizarrako merindadea, Erriberriko merindadea eta Tuterako merindadea. Jakina denez, seigarrena Nafarroa Beherea zen.

Eskualdeen banaketa zailagoa da eta, hori dela eta, arau honetan ohikoenak soilik bildu dira. Argi utzi behar da Euskaltzaindiak izenak arautzen dituela, eta ez duela erabakitzen eskualde horietako bakoitzean zein herri sartzen den. Beraz, arau honetan egiten den eskualde banaketa lagungarri gisa baizik ez da hartu behar. Hona merindadeka egin den banaketa:

Iruñeko merindadea:

Antsoain zendea, Anue ibarra, Araitz ibarra, Arakil ibarra, Aranatzaldea, Atetz, Basaburua, Baztanaldea, Bortziriak edo Bortzerriak, Burunda, Etxauribar, Ezkabarte, Galar zendea, Imotz, Iruñealdea, Iruñerria, Itza zendea, Izarbeibar, Larraun ibarra, Leitzarar-Urumealdea, Malerreka, Odieta, Olaibar, Ollaran edo Olloibar, Oltza zendea, Txulapain, Ultzama eta Zizur zendea⁴.

Zangozako merindadea:

Aranguren ibarra, Elortzibar, Erronkaribar, Ibargoiti harana, Itzagaondoa ibarra, Longida ibarra, Nabaskoze almiradioa, Oibar harana, Untzitibar, Urraul, Zangozerra eta Zaraitzu.

Lizarrako merindadea:

Aguilar ibarra, Berrotza ibarra, Egaibar, Iguzkitza ibarra, Lizarrerriko Erribera, Los Arcosko Bostiriak, Mañeruibar eta Vianaldea.

Erriberriko merindadea:

Orbaibar

2) Kendu diren bitasunak

Aurreko izendegietan ageri ziren bitasun gehienak kendu egin dira, ondoko sailkapenean ematen diren hainbat arrazoi direla medio.

a) 1979ko izendegian zortzi udal bi izenekin ageri ziren:

⁴ Urdazubik eta Zugarramurdik eta Lapurdiko Ainhoak eta Sarak sortu berri duten *Xareta* udal-elkartea ere gehitu da.

Euskal izena	herritarra	1979ko izena	Izen ofiziala
Aguilar Kodes	<i>agilartar</i>	Agilar = Arranotegi*	Aguilar de Codés
Atarrabia	<i>atarrabiar</i>	Atarrabia = Billaba	Villava <> Atarrabia
Cabanillas	<i>cabanillastar</i>	Kabanillas = Kapanaga*	Cabanillas
Cabredo	<i>cabredoar</i>	Kabredo = Ahuntzegi*	Cabredo
Cárcar	<i>karkartar</i>	Karkar = Karakarre	Cárcar
Monteagudo	<i>monteagudoar</i>	Monteagudo = Mendikute*	Monteagudo
Ribaforada	<i>ribaforadar</i>	Ribaforada = Erripazuloaga*	Ribaforada
Torres del Río	<i>torrestar</i>	Torres = Dorreaga*	Torres del Río

Izartxoaren daramaten bigarren izendapenak asmatuak edo neologismoak zirenez gero, ez zuten lekurik izan 1990eko izendegian. *Karakarre* ere asmatua da. *Atarrabia* kasu berezia da; euskaldunek *Billaba* erabili izan dute, baina XX. mendean *Atarrabia* nagusitu eta izen hau da gaur egun euskaraz erabiltzen dena.

b) 1990eko izendegian bigarren aldaera jarri zitzairen lau herriri kendu egin zaie oraingoan.

Euskal izena	herritarra	1990ko izena	Izen ofiziala
Jaurrieta	<i>jaurrietar</i>	1. Eiaurrieta 2. Ihaurrieta	Jaurrieta
Olatzagutia (-a)	<i>olatzagutiar</i>	1. Olatzagutia, 2. Olazti	Olazti/Olatzagutía
Orbaizeta	<i>orbaizetar</i>	1. Orbaitzeta, 2. Orbaizta	Orbaitzeta
Otsagabia (-a)	<i>otsagabiar</i>	1. Otsagabia, 2. Otsagi	Ochagavía <> Otsagabia

Jaurrietaren kasuan *Eaurta* proposatu zen 1979an, euskaldunen ahozko erabilera nagusiarri lehentasuna emanaz⁵. 1990ean, berriz, antzinako agiritako *Eiaurrieta* edo *Ihaurrieta* hobetsi ziren. Aldaera hori XI-XIII mendez geroztik ageri ez denez gero, zaharkituztat jo da eta orduan erabili ohi den *Jaurrieta* onetsi da. *Olazti*, *Orbaizta* eta *Otsagi* ahozko aldaera laburtuak alde batera utzi dira, beste hainbat herri izenetan egin den bezalaxe, hala nola, *Elgorria* (*Elgorriaga*), *Ittuna* (*Ituren*), *Lekauz* (*Lekaroz*), *Sauta* (*Saragueta*) edo

⁵ Nagusia diogu *Igaurta*, *I(g)orta* eta *Iaurta* aldaerak ere erabiltzen direlako.

Lixarrango (Lizarragabengoa). Gainera, nazioarteko irizpidea idazketan eta goi mailako erabileran forma osoak erabiltzearen alde mintzo da, baina horrek ez du esan nahi forma laburtuen erabilera desegokia dela mintzatzean.

3) Ikerketa berrien ondorioz zuzendu diren izenak

1990az geroztik egindako ikerketen ondorioz, datu berriak lortu dira eta, holakoetan egin ohi den bezala, aurretik hartutako zenbait erabaki aldatu behar izan dira. Aldaketa horiek honako hiru atal hauetan sailka daitezke.

A) Afrikatuen auziaren ondoriozko aldaketak.

Aurreko izendegietan, amaierako *-s* eta *-z* afrikariak direla eta, izen guztietan analogia aplikatu zen eta Nafarroan ohikoak diren *-ts* eta *-tz* amaierari eman zitzaien lehentasuna⁶. Oraingo honetan, berriz, tokian tokiko ahoskera errespetatu da.

Euskal izena	herritarra	1990ko izena	Izen ofiziala
Adios	<i>adiostar</i>	Adiotz	Adiós
Oiz	<i>oiztar</i>	Oitz	Oitz
Orbaizeta	<i>orbaizetar</i>	Orbaitzeta, Orbaizta	Orbaitzeta
Urroz	<i>urroztar</i>	Urrotz	Urrotz

Orbaizeta izenaren kasuan, etimologiaz baliatu zen Akademia *Orbaitzeta* proposatzeko, baina ikerketek argi utzi dute *Orbaizeta* dela euskal forma jatorra.

B) Ikerketa berriek herri eta ibar izenetan eragindako zuzenketak:

Azken urteotan egindako ikerketek izen batzuen euskal forma egokia ezagutzeko aukera eman dute. Hori dela eta, aldaketa hauek onartu dira:

Euskal izena	herritarra	1990ko izena	Izen ofiziala
Ameskoabarrena (-a)	<i>ameskoar</i>	Ameskoabarren	Améscoa Baja
Ameskoagoiena (-a)		Ameskoagoien	
Arroitz	<i>arroiztar</i>	Arronitz	Arróniz
Artaxoa	<i>artaxoar</i>	Artaxona	Artajona
Beraskoain	<i>beraskoaindar</i>	Belaskoain	Belascoáin
Girgillao	<i>girgillaoar</i>	Girgillano	Guirguillano
Larragoa	<i>larragoar</i>	Larraona	Larraona

⁶ Baztango herri izenetan izan ezik, bertako ahoskera hobestea erabaki baitzen.

Lizoainibar	<i>lizoainibartar</i>	Lizoain	Lizoáin
Orbaibar		Orba (ibarra)	Valdorba
Tebas-Muru Artederreta	<i>tebastar, muruartederretar</i>	Tiebas-Muru Artederreta	Tiebas-Muruarte de Reta
Txulapain	<i>txulapaindar</i>	Xulapain (ibarra)	Juslapeña

C) Herritar izenetan egindako aldaketak:

Atal honetan ageri diren aldaketak maila desberdinekoak dira. Batzuetan euskal izen zuzena zein den jakitean herritar izena ere aldatu behar izan da: *Artaxoa*, eta ez *Artaxona* izanik, herritar izena *artaxoar* da. Beste kasu batzuetan –udal berri direnetan eta zenbait eskualderen izenetan– herritar izena gehitu behar izan da. Azkenik, aitzineko izendegietan proposatutako zenbait herritar izen ez ziren erabat zuzenak, edo ahozko laburpenak zirelako, edo XX. mendean zabalduko *-tar* atzizkiaren lekuz kanpoko erabilera aplikatu zelako.

Euskal izena	herritarra	1979ko herritar izena	Izen ofiziala
Abaurregaina (-a) ⁷	<i>abaurrear</i> ⁸	<i>abaurtar</i>	Abaurregaina/Abaurrea Alta
Abaurrepea (-a) ⁹	<i>abaurrepetar</i>	<i>abaurtar</i>	Abaurrepea/Abaurrea Baja
Aezkoa	<i>aetz</i>		Aezkoa
Aribe	<i>aribear</i>	<i>aribetar</i>	Aribe
Eguesibar	<i>eguesibartar</i>	<i>eguestar</i>	Egüés
Erromantzatua (-a)	<i>erromantzatuar</i>	<i>urrauldar</i>	Romanzado
Erronkaribar ¹⁰	<i>erronkaribartar</i>		
Espartza ¹¹	<i>espartzar, espartzazaraitzuar</i> ¹²	<i>espartzar</i>	Espartza de Salazar / Espartza Zaraitzu

⁷ Gogoratu behar da *Abaurregaina* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Abaurregaina, Abaurregainarekin...*, baina *Abaurregainean, Abaurregaineko, Abaurregainetik, Abaurregainera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Abaurregain maitea, Abaurregain osoan, gure Abaurregain hau...*

⁸ Abaurrepeko herritarrengandik bereizteko *abaurregaindar* ere erabil daiteke.

⁹ Gogoratu behar da *Abaurrepea* izenaren bukaerako *-a* artikulua dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Abaurrepea, Abaurrepearekin, Abaurrepean...*, baina *Abaurrepeko, Abaurrepetik, Abaurrepera...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean, adibidez: *Abaurrepe maitea, Abaurrepe osoan, gure Abaurrepe hau...*

¹⁰ Maila apalean *Kallesa (-a)* leku izena eta *kalles* herritar izena erabiltzen dira ibarra eta ibarreko biztanleak aipatzeko.

¹¹ Euskal Herrian dauden *Espartza* izeneko beste herrietatik bereizi behar denean, honela erabiliko da: *Espartza Zaraitzu* (izenburu gisa). Testuetan, deklinaturik eman behar denean: *Espartza Zaraitzuko eliza berritu dute*.

¹² *Espartzazaraitzuar* Zaraitzukoak Galarkoengandik bereizteko erabil daiteke.

Galipentzu	<i>galipentzutar</i>	<i>galipentzar</i>	Gallipienzo
Garaioa	<i>garaiotar</i>	<i>garaioar</i>	Garaioa
Girgillao	<i>girgillaoar</i>	<i>girgillanoar</i>	Guirguillano
Goñerri, Goñibar	<i>goñerritar, goñibartar</i>	<i>goñibartar</i>	Goñi
Jaurrieta	<i>jaurrietar</i>	<i>eaurtar</i>	Jaurrieta
Ledea	<i>ledeatar</i>	<i>lediar</i>	Liédena
Lukin	<i>lukindar</i>	<i>lukiaindar</i>	Luquin
Noain Elortzibar	<i>noaindar, elortzibartar</i>	<i>elortzibartar</i>	Noáin (Valle de Elorz) <> Noain (Elortzibar)
Orbara	<i>orbaratar</i>	<i>orbartar</i>	Orbara
Orotz-Betelu	<i>oroztar</i>	<i>orozbeteluar</i>	Orotz-Betelu
Otsagabia (-a) ¹³	<i>otsagabiar</i>	<i>otsagiar</i>	Ochagavía <> Otsagabia
San Martin Unx	<i>sanmartindar</i>	<i>donamartiriar</i>	San Martín de Unx
Sorlada	<i>sorladatar</i>	<i>surusladar</i>	Sorlada
Uharte ¹⁴	<i>uhartear, uharteguesibartar</i> ¹⁵	<i>uhartear</i>	Huarte <> Uharte
Urraulbeiti	<i>urraulbeitiar</i>	<i>urrauldar</i>	Urraúl Bajo
Urraulgoiti	<i>urraulgoitiar</i>	<i>urrauldar</i>	Urraúl Alto
Villamayor de Monjardín	<i>villamayortar</i>	<i>doneztebar</i>	Villamayor de Monjardín
Zaraitzu	<i>zaraitzuar</i>		
Zare	<i>zarear</i> ¹⁶	<i>zarear</i>	Sada
Zuñiga	<i>zuñigar</i>	<i>eztunigar</i>	Zuñiga

4) Arau berrien ondorioz zuzendu diren izenak

Gorago aipatu bezala, Euskaltzaindiak beste zenbait arau eta gomendio eman ditu. Horien artean 141. araua: *Herri izenak, hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera*. Bertan zehazten da herri izenetan ageri diren zeinu grafikoak nola erabili behar diren eta zein hurrenkera segitu behar den izen ofizialari eskualdearena edo bestelakoren bat gehitu behar zaionean. Arau berri horren ondorioz, 1979an ageri ziren parentesiak kendu egin dira eta, behar den kasuetan, herri izenari gehitu behar zaion osagarria atzean jarri behar da. Azken hau

¹³ Gogoratu behar da *Otsagabia* izenaren bukaerako *-a* artikulutzat erabiltzen dela. Hortaz, udalaren izen osoa erabiltzean honakoa da bidea: *Otsagabia, Otsagabiarekin, Otsagabian...*, baina *Otsagabiko, Otsagabitik, Otsagabira...* Era berean, izen honek bere azken *-a* galtzen du ondoan beste determinatzaile bat edo adjektiboa daramanean; adibidez: *Otsagabi maitea, Otsagabi osoan, gure Otsagabi hau...*

¹⁴ Izen hau Euskal Herrian dauden *Uharte* izeneko beste herrietatik bereizi behar denean, honela erabiliko da: *Uharte Eguesibar* (Izenburu gisa), deklinaturik eman behar denean: *Uharte Eguesibarko eliza berritu dute*.

¹⁵ *Uharteguesibartar*, Uharte Eguesibarkoak beste uhartearrengandik bereizteko erabil daiteke.

¹⁶ Honekin batera *Zareko* erabiltzen da, normala den bezala, baita erdaraz ere.

dela eta, kontuan izan behar da, Etxauribarko Etxarri herriak, Aranatzen dagoen izen berekoarekin sortzen ahal duen nahasketa saihesteko, *Etxarri Etxauribar* erabili beharko dela. Modu berean jokatu behar da *Uharte*, *Hiriberri* eta abarretan.

Azkenik, badira izen batzuk, *Cárcar*, *Castejón*, *Cintruénigo*, *Lapoblación*, *Marañón*, *Mélida*, *San Adrián*, *Torralba del Río* eta *Torres del Río*, erdarazkoak izanik azentu grafikoa daukatenak. Horrelakoetan, jakina den bezala, euskal testuetan erabili behar direnean, Akademiak zeinu grafikorik gabeko aldaera gomendatzen du, hots, *Marañongo udaletxea* edo *Castejongo lurrak*.

Euskal izena	herritarra	Aurreko proposamena	Izen ofiziala
Hiriberri ¹⁷	<i>hiriberriar</i>	(Aezkoa-) Hiriberri	Hiriberri/Villanueva de Aezkoa
Uharte ¹⁸	<i>uhartear</i> , <i>uharteguesibartar</i> ¹⁹	(Egues-) Uharte	Huarte <> Uharte
Etxarri Aranatz	<i>etxarriar</i> , <i>etxarriaranaztar</i>	Etxarri-Aranatz	Etxarri-Aranatz
Etxarri ²⁰	<i>etxarriar</i> , <i>etxarrietxauriar</i> ²¹	(Etxauri-) Etxarri	Echarri
Urrotz ²²	<i>urroztar</i>	(Lizoain)-Urrotz	Urroz-Villa
Miranda Arga	<i>mirandar</i>	(Arga-) Miranda	Miranda de Arga
Uharte Arakil	<i>uhartear</i> , <i>uhartearakildar</i>	Uharte-Arakil	Uharte-Arakil
Petilla Aragoi	<i>petillar</i>	Petilla de Aragón	Petilla de Aragón
Doneztebe Iguzkitza		(Iguzkitza-) Doneztebe (ibarra)	Santesteban de la Solana
Egaibar		Ega (ibarra)	Valdega

5) Euskal ordain ezaguna ez duten herri izenak.

¹⁷ Izen hau Euskal Herrian dauden *Hiriberri* izeneko beste herrietatik bereizi behar denean, honela erabiliko da: *Hiriberri Aezkoa* (izenburu gisa), deklinaturik eman behar denean: *Hiriberri Aezkoako eliza berritu dute*.

¹⁸ Izen hau Euskal Herrian dauden *Uharte* izeneko beste herrietatik bereizi behar denean, honela erabiliko da: *Uharte Eguesibar* (izenburu gisa), deklinaturik eman behar denean: *Uharte Eguesibarko eliza berritu dute*.

¹⁹ *Uharteguesibartar*, Uharte Eguesibarkoak beste uhartearrengandik bereizteko erabil daiteke.

²⁰ Euskal Herrian dagoen beste *Etxarri*-tik bereizi behar denean, honela erabiliko da: *Etxarri Etxauribar* (izenburu gisa), deklinaturik eman behar denean: *Etxarri Etxauribarko eliza berritu dute*.

²¹ *Etxarrietxauriar*, Etxarri Etxauribarkoak beste etxarriarengandik bereizteko erabil daiteke.

²² *Urroz-Villa* izendapen ofizial administratibo berriaren euskal ordaina eman nahi izanez gero, *Urrotz-Hiria* erabili beharko litzateke.

Nafarroan, Araban bezala, zenbait udal izenek ez dute euskal ordain ziurrik edota ezagunik. Hala ere, 1979ko izendegian ordain horiek ematearen alde jokatu zen. Kasu batzuetan erdal izena hobetsi zen, hala nola *Tafalla* edo *Sesma*. Beste zenbaitetan, gutxitan egia esan, egungo izenaren aldaera zaharrena euskal izentzat hartu zen, *Zentroniko*, adibidez. Beste kasu frankotan, erdal izena euskal idazkerara moldatu zen, *Biana*, *Karkar* edo *Kaskante* esaterako. Azkenik, izen berri gutxi batzuk asmatu ere egin ziren: *Ahuntzegi*, *Kapanaga*, *Meanuri*, *Uxanuri*. 1990ean argitara emandako izendegian, berriz, izen horiek alde batera utziz, *N.t.e.e.c.* (*No tiene equivalente eusquérico conocido*), hau da *Ez du euskal ordain ezagunik*, paratu zen.

Izendegi berri honetarako, azkeneko urteotan egindako ikerketan oinarrituta Akademiak gaia berraztertu eta lortutako datuekin proposamen berriak eskaini ahal izan ditu. Egin diren aldaketa horiek hiru multzotan sailka daitezke.

a) Arau berrien ondorioz aldatu behar izan direnak

Euskaltzaindiak 141. arauan²³ zehaztu du nola jokatu *lekua gehi eskualdea, harana edo ibarra* adierazten duten herri izenetan. Holakoetan lehendabizi herriaren izena jarriko da eta gero, tarteko marratxorik gabe, ibar edo eskualdearena. Herri izena gehi eskualde, haran edo ibarraren erabilera oso hedatua dago eta elkartze hori jadanik lexikaldutzat ematen denean, erabilera jasoan biak jarriko dira, erraterako *Miranda Arga*, *Uharte Arakil*. Zenbait kasutan, ordea, herri izenaren erabilera arruntak ez du ezinbestez eskatzen eskualde, haran edo ibarraren argigarria eta hortaz ez da jarri beharrik, betiere baldin eta nahasketa sortzeko arriskurik ez badago. Baina testuingurua behar bezain argia ez denean, herri hori izenkidea den beste batekin nahas litekeelako, herri izenaren ondotik, dagokion ibar edo eskualdearena jarriko da argigarri: *Hiriberri Aezkoa*.

Euskal izena	herritarra	1979ko izena	1990 izendegia	Izen ofiziala
Aguilar ibarra (-a)			(<i>N.t.e.e.c.</i>)	
Aguilar Kodes	<i>agilartar</i>	Agilar = Arranotegi*	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Aguilar de Codés
Doneztebe Iguzkitza			(Iguzkitza-) Doneztebe (ibarra)	
Etxarri Aranatz	<i>etxarriar</i> ²⁴	Etxarri-Aranatz	Etxarri-Aranatz	Etxarri-Aranatz
Hiriberri ²⁵	<i>hiriberriar</i>	(Aezkoa-)	(Aezkoa-) Hiriberri	Hiriberri/Villanueva

²³ *Herri izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera*, 2004ko azaroaren 26an, Gasteizen onartua.

²⁴ *Etxarriaranaztar*, Etxarri Aranazkoak beste etxarriarrendandik bereizteko erabil daiteke.

		Iriberry		de Aezkoa
Miranda Arga	<i>mirandar</i>	(Arga-) Miranda	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Miranda de Arga
Petilla Aragoi	<i>petillar</i>	Petilla de Aragón	Petilla de Aragón	Petilla de Aragón
Uharte ²⁶	<i>uhartear</i> ²⁷	Uharte	(Egues-) Uharte	Huarte<>Uharte
Uharte Arakil	<i>uhartear</i> ²⁸	Uharte-Arakil	Uharte-Arakil	Uharte-Arakil
Urrotz	<i>urroztar</i>	Urrotz	(Lizoain)-Urrotz	Urroz-Villa

b) Euskaraz idazkera propioa dutenak:

Euskal izena	herritarra	1979ko izena	1990 izendegia	Izen ofiziala
Armañanzas	armañantzastar	Armañanzas	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Armañanzas
Esprontzeda	esprontzedar	Esprontzeda	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Espronceda
Faltzes	faltzestar	Faltzes	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Falces
Martzilla	martzillar	Martzilla	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Marcilla
Santsol	santzoldar	Santzol	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Sansol
Santakara	santakarar	Santakara	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Santacara

c) Erdal idazkera gordetzen dutenak.

Euskal izena	herritarra	1979ko izena	1990 izendegia	Izen ofiziala
Ablitas	ablitastar	Ablitas	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Ablitas
Allo	alloar	Allo	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Allo
Andosilla	andosillar	Andosilla	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Andosilla
Aras	arastar	Aras	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Aras
Arguedas	arguedastar	Argetas	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Arguedas
Azagra	azagrar	Azagra	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Azagra
Azuelo	azueloar	Azuelo	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Azuelo
Bargota	bargotar	Bargota	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Bargota
Barillas	barillastar	Barillas	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Barillas
Buñuel	buñeldar	Buñuel	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Buñuel
Cabanillas	cabanillastar	Kabanillas= Kapanaga*	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Cabanillas

²⁵ Izen hau Euskal Herrian dauden *Hiriberri* izeneko beste herrietatik bereizi behar denean, honela erabiliko da: *Hiriberri Aezkoa* (izenburu gisa), deklinaturik eman behar denean: *Hiriberri Aezkoako eliza berritu dute*.

²⁶ Izen hau Euskal Herrian dauden *Uharte* izeneko beste herrietatik bereizi behar denean, honela erabiliko da: *Uharte Eguesibar* (izenburu gisa), deklinaturik eman behar denean: *Uharte Eguesibarko eliza berritu dute*.

²⁷ *Uharteguesibar*, Uharte Eguesibarkoak beste uhartearrengandik bereizteko erabil daiteke.

²⁸ *Uhartearakildar*, Uharte Arakilgoak beste uhartearrengandik bereizteko erabil daiteke.

Cabredo	cabredoar	Kabredo= Ahuntzegi*	(N.t.e.e.c.)	Cabredo
Cadreita	cadreitar	Kadereita	(N.t.e.e.c.)	Cadreita
Caparroso	caparrosoar	Kaparroso	(N.t.e.e.c.)	Caparroso
Cárcar	carcartar	Karkar= Karakarre	(N.t.e.e.c.)	Cárcar
Cascante	cascantear	Kaskante	(N.t.e.e.c.)	Cascante
Castejón	castejondar	Kastejon	(N.t.e.e.c.)	Castejón
Cintruénigo	cintruenigoar	Zentroniko	(N.t.e.e.c.)	Cintruénigo
Corella	corellar	Korella	(N.t.e.e.c.)	Corella
Cortes	cortestar	Kortes	(N.t.e.e.c.)	Cortes
El Busto	elbustoar	Busto	(N.t.e.e.c.)	El Busto
Fitero	fiteroar	Fitero	(N.t.e.e.c.)	Fitero
Fontellas	fontellastar	Fontellas	(N.t.e.e.c.)	Fontellas
Funes	funestar	Funes	(N.t.e.e.c.)	Funes
Fustiñana	fustiñanar	Fustiñana	(N.t.e.e.c.)	Fustiñana
Lapoblación	lapoblaciondar	Meanuri*	(N.t.e.e.c.)	Lapoblación
Lerin	lerindar	Lerin	(N.t.e.e.c.)	Lerín
Lodosa	lodosar	Lodosa	(N.t.e.e.c.)	Lodosa
Marañón	marañondar	Marañon	(N.t.e.e.c.)	Marañón
Mélida	melidar	Melida	(N.t.e.e.c.)	Mélida
Milagro	milagroar	Milagro	(N.t.e.e.c.)	Milagro
Monteagudo	monteagudoar	Monteagudo= Mendikute*	(N.t.e.e.c.)	Monteagudo
Murchante	murchantear	Murtxante	(N.t.e.e.c.)	Murchante
Murillo el Cuende	murilloar	Murelu(- Konde)*	(N.t.e.e.c.)	Murillo el Cuende
Murillo el Fruto	murilloar	Murelu(- Hautsi)*	(N.t.e.e.c.)	Murillo el Fruto
Pitillas	pitillastar	Pitillas	(N.t.e.e.c.)	Pitillas
Ribaforada	ribaforadar	Ribaforada= Erripazuloaga	(N.t.e.e.c.)	Ribaforada
San Adrián	sanadriandar	San Adrian	(N.t.e.e.c.)	San Adrián
Sartaguda	sartagudar	Sartaguda	(N.t.e.e.c.)	Sartaguda
Sesma	sesmar	Sesma	(N.t.e.e.c.)	Sesma
Tafalla	tafallar	Tafalla	(N.t.e.e.c.)	Tafalla
Torralba del Río	torralbar	Torralba del Río	(N.t.e.e.c.)	Torralba del Río

Torres del Río	torrestar	Torres= Dorreaga*	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Torres del Río
Tulebras	tulebrastar	Tulebras	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Tulebras
Valtierra	valtierrar	Balterra	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Valtierra
Viana	vianatar	Biana	(<i>N.t.e.e.c.</i>)	Viana

6) Deklinabidea

1979ko izendegian bezala Onomastika batzordeak egoki ikusi du leku izenen deklinabideak biltzen dituzten taulak gehitzea erabiltzaileen mesederako.

6a) Kontsonantez amaitutakoak

	Edozein kontsonante	Kontsonante afrikatua	Amaierako -n kontsonantea
Zer	<i>Oibar</i>	<i>Agoitz</i>	<i>Irurtzun</i>
Zerekin	<i>Oibarrekin</i>	<i>Agoitzekin</i>	<i>Irurtzunekin</i>
Noren	<i>Oibarren</i>	<i>Agoitzen</i>	<i>Irurtzunen</i>
Non	<i>Oibarren</i>	<i>Agoitzen</i>	<i>Irurtzunen</i>
Nongo	<i>Oibarko</i>	<i>Agoizko</i>	<i>Irurtzungo</i> ²⁹
Nondik	<i>Oibartik</i>	<i>Agoiztik</i>	<i>Irurtzundik</i>
Nora	<i>Oibarra / Oibarrera</i>	<i>Agoitza / Agoitzera</i>	<i>Irurtzuna / Irurtzunera</i>
Nork	<i>Oibarrek</i>	<i>Agoitzek</i>	<i>Irurtzunek</i>

6b) Bokalez amaitutakoak

Zer	<i>Bera</i>	<i>Anue</i>	<i>Etxarri</i>	<i>Areso</i>	<i>Altsasu</i>
Zerekin	<i>Berarekin</i>	<i>Anuerekin</i>	<i>Etxarrirekin</i>	<i>Aresorekin</i>	<i>Altsasurekin</i>
Noren	<i>Beraren</i>	<i>Anueren</i>	<i>Etxarriren</i>	<i>Aresoren</i>	<i>Altsasuren</i>
Non	<i>Beran</i>	<i>Anuen</i>	<i>Etxarrin</i>	<i>Areson</i>	<i>Altsasun</i>
Nongo	<i>Berako</i>	<i>Anueko</i>	<i>Etxarriko</i>	<i>Aresoko</i>	<i>Altsasuko</i>
Nondik	<i>Beratik</i>	<i>Anuetik</i>	<i>Etxarritik</i>	<i>Aresotik</i>	<i>Altsasutik</i>
Nora	<i>Berara</i>	<i>Anuera</i>	<i>Etxarrira</i>	<i>Aresora</i>	<i>Altsasura</i>
Nork	<i>Berak</i>	<i>Anuek</i>	<i>Etxarrik</i>	<i>Aresok</i>	<i>Altsasuk</i>

6c) Artikuluaz amaitutakoak (-a eta -ak)

²⁹ Ez bedi erabil *Irurtzuneko*.

	Kontsonantea gehi artikulua singularrean	Kontsonantea gehi artikulua pluralean	Bokal gehi artikulua
Zer	<i>Abaurregaina</i>	<i>Bortziriak</i>	<i>Olatzagutia</i>
Zerekin	<i>Abaurregainarekin</i>	<i>Bortziriekin</i>	<i>Olatzagutiarekin</i>
Noren	<i>Abaurregainaren</i>	<i>Bortzirien</i>	<i>Olatzagutiaren</i>
Non	<i>Abaurregainean</i>	<i>Bortzirietan</i>	<i>Olatzagutian</i>
Nongo	<i>Abaurregaineko</i> ³⁰	<i>Bortzirietako</i>	<i>Olatzagutiko</i>
Nondik	<i>Abaurregainetik</i> ³¹	<i>Bortzirietatik</i>	<i>Olatzagutitik</i>
Nora	<i>Abaurregainera</i>	<i>Bortzirietara</i>	<i>Olatzagutira</i>
Nork	<i>Abaurregainak</i>	<i>Bortziriek</i>	<i>Olatzagutiak</i>

Onomastika batzordeak Altsasun bi mila eta zazpiko azaroaren hamaseian onartua.

³⁰ Ez bedi erabil *Abaurregaingo*.

³¹ Ez bedi erabil *Abaurregaindik*.